



Zer da "Eusko Jaurlaritzako eta Osakidetzako Lankideen zer0,7 Elkartasun Fondoa"?

Nola sortu zen zer0,7?

1998. urtean, Eusko Jaurlaritzako eta Osakidetzako langile talde batek pentsatu genuen geure elkartasuna adierazi behar genuela gure inguruan eta, bereziki, hirugarren munduan dagoen pobrezia eta marjinazioaren aurrean. Hori horrela, gure ekimena aurrera eramateko eta behartsuenei elkartasuna adierazteko lan inguruaz baliatuz, 0,7 aldarrikapenari atxikitzea eta elkartasun fondoa sortzea erabaki genuen.

Hartara, aldarrikapenarekiko koherentzia pertsonalagatik, ekimenarekin bat egiten duten langileek beren soldataren % 0,7 eskaintzen dute lankidetzako proiektuak finantzatzeko. Izan ere, garrantzitsutzat jotzen dugu gizartearen eskakizun honekiko daukagun norbanako erantzukizuna onartzea.

Bi helburu nagusi ditugu:

- Pobrezia eta marjinazioaren aurrean Eusko Jaurlaritzako eta Osakidetzako langileen elkartasuna sustatu, lantokian bertan sentsibilizazio kanpainak eginez.
- Bere lan solidarioagatik ezagunak diren zenbait erakunde espezializaturen proiektuak laguntzeko dirua jaso.

Hau guztia aurrera eramateko 1998ko ekainean zer0,7 elkartea sortu genuen. Elkartea akonfesionala da, eta ez du loturarik inolako alderdi politiko edo sindikaturekin. Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistroan izena emana du, eta Eusko Jaurlaritzako Administrazioaren laguntza daukagu: alde batetik, nomina sistemaz baliatzen gara atxikipean gauzatzeko; bestetik, gure funtzionamendua errazten duen zenbait baliabide erabil dezakegu.

Elkartek babes legala eta formala ematen dio gure ekimenari. Bazkideen batzarra da erabakiak hartzen dituen organoa, eta bi aldiz urtean elkartzen da. Batzarrak Zuzendaritza Batzordea aukeratzen du, elkartearen ordezkaritza legala bere gain har dezan.



Nola funtzionatzen du zer0,7k?

Ekimenari borondatez atxikitako langileen soldatatik dirua atera eta kontu korrante batera pasatzen da; **zer0,7** baita kontuaren titularra.

Zer0,7 elkarteak ez ditu berak lankidetzaren proiektuak garatzen; diruz laguntzen baititu besteenak. Urtero deialdi ireki bat ateratzen du gure Autonomi Erkidegoan garapen-lankidetzaren diharduten Gobernu Kanpoko Erakundeek beren proiektuak aurkez ditzaten. Bazkideok, aurkeztutako proiektuen berri izan ondoren, zuzeneko bozketa baten bidez erabakitzen dugu zein proiektu finantzatu dugun.

Hiru urterik behin lankidetzaren helburuak eta estrategiak aztertu eta horiekin jarraitu edo aldatzen ditugun erabakitzen dugu. Helburu eta estrategiak erabakitzeak zein gune geografikotako proiektuak edota zein arlotakoak lagunduko ditugun erabakitzea suposatzen du. Une honetan Afrikako zein Amerikako herrialde pobreenetan garatzen diren proiektuak onartzen ditugu gure deialdia, NBEaren Giza Garapenaren Indizean azken 15 tokietan dauden Afrikako herrialdeetakoak eta Amerikako azken 8 tokietan dauden herrialdeetakoak, hain zuzen.

Aukeratutako proiektuen jarraipena eta ebaluazioa egin ondoren, emaitzen berri ematen zaie bazkide guztiei.

Informazioa zabaltzen eta sentsibilizazioa lantzen ere ahalegintzen gara.

Zer0,7n parte hartu


- Ekarpene ekonomikoa eginez.

Zer0,7 parte hartzen duenari, hilero, bere soldataren %0,7a atxikitzen edo kentzen zaio. Soldataren zati bat ematen dugunok Zer0,7 elkarteko bazkide arruntak gara; hau da, finantzagai diren proiektuak bozkatzeko eskubidea ez ezik, batzarrean boza eta boto-eskubidea ere badugu.

- Deialdiaren kudeaketa eta gestio lanetan lagunduz.

Fondoa kudeatzeak eta deialdia aurrera eramateak dakarren lana Zer0,7ren zuzendaritza batzordea osatzen dugun bazkideek egiten dugu. Batzorde hau irekia da eta interesa duen edozeinek har lezake parte bertan, bai eguneroko lana egiten laguntzeko edota lankidetzaren estrategia berriak definitzeko hausnarketan ideiak eta iritzia eskainiz. Elkartean lan egiteko ez da beharrezkoa bazkide izatea; Zer0,7ren estatutuek aurreikusten dute elkartearekin elkarlanean jarduteko aukera, ekarpen ekonomikorik egin ez arren.

Elkartea sortu zenetik banatutako dirulaguntzak



Azken bost urteetan dirulaguntza jaso duten proiektuak.

2011

PROIEKTUAK	GKE	HERRIALDEA	€
Urik ez, bizitzarik ez. Etiopiako 12 herriri ura eskura jarri.	MANOS UNIDAS	Etiopia	100.000,00
Lukayako landa.garatzeko programa	ALBOAN	Kongoko E.D	99.835,47
"Sua ajuda, nosas vidas" desnutrizio, malaria eta beste gaixotasun endemikoen prebentzioa Mozambiken.	HAURRALDE	Mozambique	84.592,3
Dweko erreferentzia zentroan pabeloi bat, komunen eta dutxen blokea eta ur-depositoa egin.	PROCLADE YANAPAY	Kongoko E.D	56.000,00
TOTAL			340.427,7

2012

PROIEKTUAK	GKE	HERRIALDEA	€
Ura=bizitza Sierra Leonako 13 herrirentzat.	MANOS UNIDAS	Sierra Leona	99.590,00
Emakumeak jasaten duten mutilazio genitala desagertarazteko informazio eta sensibilizazio kanpaina	AFRIC FORUM	Burkina Faso	28.250,40
Nigeren ama eta haurrentzako abegi-zentroa eraiki.	REMAR ESPAÑA	Niger	100.000,00
Haurren ezkontzen eta bahiketen aurka aritu. Fistula obstetrikiko larria duten emakumeen errehabilitazioa.	HAURRALDE	Etiopia	73.000,00
TOTAL			300.840,40

2013

PROIEKTUAK	GKE	HERRIALDEA	€
Ura bizitzeko. Afrikako adarreko herri bat ur edangarriz hornitzeko sistema eraiki.	FUNDACIÓN JOVENES Y DESARROLLO	Etiopia	80.710,00
Madimbako lurraldeko Kisantun sexu indarkeria jaso izan duten emakumeei arreta eskaina.	MEDICUS MUNDI BIZKAIA	Kongoko RD	99.970,36
Kongoko ekialdean gudaren ondorioz desplazaturakoei giza-laguntza eskaini.	ALBOAN	Kongoko ED	100.000,00
Puerto Principen sexu-indarkeria jasaten duten neskatilak babestu.	GIZAKIEN LURRA - Tdh	Haiti	10.000,00
TOTAL			290.680,00

2014

PROIEKTUAK	GKE	HERRIALDEA	€
Shabundako lehen-hezkuntzako eskola handitu eta birgaitu tokiko umeak eta talde armatuetatik ateratako haur soldaduak hartzeko, gazteen lanbide-heziketa, letrinak eraiki, ur-edangarria izateko putzua egin eta hezia jarri eskola inguruan.	FRANSOL	Kongoko ED	99.792,00
Ebola-epidemia dela eta, Monroviako Al Saint Joseph catholic ospitalari premiazko laguntza eman.	Asociación Africanista Manuel Iradier	Liberia	96.292,87
Burundin etxeko lanak egiten dituzte neskatilak lan eta sexu explotaziotik babestu.	GIZAKIEN LURRA - Tdh	Burundi	78.230,00
TOTAL			274.314,87

2015

PROIEKTUAK	GKE	HERRIALDEA	€
Ur-edangarri eta saneamendua eskura Etiopiako AYDA TEKLO udalerriko landa biztaleentzat.	MANOS UNIDAS	Etiopia	50.000,00
Mekelleko Ayder ospitalean erredura larriak dituzten umeei osasun-laguntza eskaini.	FUNDACION ETIOPIA UTOPIA	Etiopia	20.224,54
Niassa probintziako Majune eta Marrupa barrutietako garapen sozioekonomikoari lagundu "nekazariz nekazari" metodologiaz oinarritutako programa: laguntza teknikoa eta prestakuntza eskainiz nekazarien trebetasunak indartu.	Mundukide Fundazioa	Mozambique	50.000,00
Monroviako Saint Joseph's Catholic Hospitaleko zerbitzuak berririko irekitzeko laguntza.	Asociación Africanista Manuel Iradier	Liberia	49.700,00
Nseloko osasun-gunean ur, higiene eta saneamendu egoerak hobetu, uraren eraginez sortzen diren gaixotasunak ekiditzeko.	MEDICUS MUNDI BIZKAIA	Kongoko Errepublika Demokratikoa	49.996,46
Tigrayen gudaren eraginez arrisku-egoeran dauden humezurtzentzat elikadura, hezkuntza eta osasun mentala hobetzen lagundu.	DERANDEIN FUNDAZIOA	Etiopia	45.561,27
TOTAL			265.482,27

2016

PROIEKTUAK	GKE	Herrialdea	€
Tigraien gerraren biktimen laguntzarako programa integrala: elikadura, hezkuntza eta osasun mentala umezurtz, nagusi eta gaixo kronikoentzat.	FUNDACION DERANDEIN	Etiopia	46.675,97
Mozambiken Mediku Oftalmologoak trebatzea. Euren herrialdea garatzen lagunduko duten etorkizuneko irakasleak, eta euren kabuz trebatzeko aukera izango dute.	OCULARIS ASSOCIACIO	Mozambique	50.000
Biyelako 800 haurren eta 60 umedun dauden emakumeen eta bularreko haurren elikadura indartu.	MEDICUS MUNDI BIZKAIA	Kongoko E.D.	49.956,04
Ur-edangarria Port Loko distrito biztalen eskura jarri beraien bizi baldintza hobetzeko.	JUAN CIUDAD ONGD	Sierra Leona	46.245,4
Bambariko gerraren eraginez desplazatutako haurrentzako eskola aurreko hezkuntza.	ALBOAN	Afrika Erdiko Errepublika	49.999,95
Ur-edangarri Lichinga Mozambiqueko udalerriko biztanleen eskura jarri.	PROSALUS	Mozambique	27.122,64
TOTAL			270.000,00 €

Zer0,7k sortu zenetik finantzatu dituen proiektu guztiei buruzko informazioa elkartearen web gunean dago eskuragarri: www.zer07.org